

Donostiako udalak haurrak euskaraz matrikulatzeko deia egin die gurasoei kanpaina hasieran

Donostiako Udalak haurrak euskaraz matrikulatzeko deia egin die gurasoei kanpaina hasieran. **Miren Azkaratek**, Udal Gobernuko Euskara zinegotziak adierazi duenez, haurrak elebidunak izan daitezen aukera onena euskarazko ereduari ikastea da. *“Datorren otsailaren 8an bukatuko da matrikulazio kanpaina eta beste urte batez, datorren ikasturtera begira seme-alabak zein hizkuntza eredutan matrikulatuko dituzten erabakitzeke unea dute gurasoek. Erabaki horrek duen garrantzia kontuan harturik, euskaraz matrikulatzeko deia egiten diegu, horixe baita elebitasunik orekatuena bermatzen duena”.*

Hiriaren egoera soziolinguistikoa kontuan harturik (2016ko EUSTATen datuen arabera 29 urtetik beherako herritar euskaldunak+ia euskaldunak %89,59 dira) egin diren ikerketek eta orain arteko esperientziak erakutsi dute D ereduak bermatzen duela elebitasunik orekatuena.

Euskara Zerbitzuak euskara jakiteak seme-alabentzat duen garrantziaz eta hortaz euskarazko ereduari hautatzearen garrantziaz ohartarazi nahi izan ditu gurasoak. Horrela gutun bidez mezu hau helarazi nahi izan die aurren seme-alabak lehen aldiz matrikulatuko dituzten 1.332 guraso donostiarrei. Gutunarekin batera, Irria aldizkariaren ale berezi bat banatu zaie, “Ikastetxetik mundura” izenburua duena. Bertan, besteak beste, euskaraz ikasi eta euskara erabiltzearen garrantzia azpimarratzeko komiki, ipuin eta erreportajeak jasotzen dira, gurasoek, haurrekin batera, irakurri eta goza dezaten.

D ereduaren hazkunde etengabea Donostian

Donostian hamar ikasletatik ia bederatzira D ereduari matrikulatzen da eskolan hasten denean. Donostian 3 urteko haurrentzat eskaintza egiten duten 19 ikastetxe publiko eta 26 ikastetxe pribatu edo hitzarmendunetan, D ereduaren aldeko bilakaera etengabea da, eta hori agerian geratzen da azken urteetako datuei erreparatuz gero.

Prensa Oharra

	1991/1992 ikasturtea	2001/2002 ikasturtea	2011/2012 ikasturtea	2018/2019 ikasturtea
A Eredua	% 15	% 9,6	% 8,43	% 8,76
B Eredua	% 498	% 38,2	% 15,79	% 3,6
D Eredua	% 33	% 52,3	% 75,78	% 87,63

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Datuok agerian uzten dute gurasoek Donostian D ereduaren alde egiten dutela eta beraien seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago jakitea nahi dutela. Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi eta erabili, orduan eta hobeto garatuko ditu beste zenbait gaitasun, eta, kultur aniztasun handiagoaz gozatzeko aukerarekin batera, lan etorkizun zabalagoa izango du. Haurrak euskaraz hazten badira, euskara haiek adina haziko da.

Donostia, 2019ko urtarrilaren 31